

*Idazleak hizkuntza artean kongresua*

## Irakurle astigmatikoen alde

“Kandela iluntasunean”, hala deskribatu zuen Jose Antonio Ardanza lehendakariak Frankismo garaian Renoko Basque Studies Center-ek egindako lana. Hil zen, ordea, Franco, eta lanean jarraitzen du AEBetan zentroak. *Writers in between languages: Minority literatures in the global scene* (Idazleak hizkuntza artean: literatura gutxituak testuinguru globalean) izeneko kongresua antolatu du aurten maiatzaren 15etik 17ra bitartean.

Testua eta argazkiak  
**INIGO ASTIZ**



**WILLIAM DOUGLASS** Distinguished Visiting Schollar izeneko programari esker, Euskal Zentroak gonbidatuta, eman du ikasturtea Bernardo Atxaga idazleak Renon. Eta urtero egin ohi dutenez, gonbidatu horri dagokion alorraren inguruan prestatu dute kongresua zentrokoek. Literatura izan da, beraz, aurten-go saio guztien bizkarrezurra. Literatura txikiak eta haien gunea munduan. 18 hizlari bildu dituzte, horretarako, hiru egunez gogo-eta egin, eztabaidatu, eta hitzaldiek emandakoarekin liburu bat argitaratzeko asmoarekin. Azken egunean beren testuen irakurketa ere eskaini dute idazleak –Aurelia Arkotxa, Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Bernardo Atxaga, Mariasun Landa, Miren Agur Meabe eta Iban Zaldua–.

Jardunaldi trinkoak izan dira, eta zaila da halakoetan ondorio argirik aipatzea. Horrek ez du esan nahi, hizlarien ikuspuntuak bat egiten ez dutenik. Ardatz beraren bueltan

**Renoko kongresuan parte hartu zutenek ez zuten hiriko kasinoak ezagutzeko aukera galdu.**

aritu dira guztiak, gutxi gorabehera. Nazio literaturez batzuk –Estibalitz Ezkerra eta Mari Jose Olaziregi–, hispanismoaz besteak –Joan Ramon Resina–, literatur itzulpenez beste batzuk –Mario Santana–, baina denak txikia ikusezin egiteko joera duten eskolak salatuz, eta errealitatea eskola horiek azaldu ohi dutena baino anitzagoa dela aldarrikatuz.

Luisa Elena Delgadok erabilitako begi astigmatikoaren irudiak labur dezake, nola-bait ere, hitzaldi gehienetan aipatu den ikuspegi aldaketaren beharra. Begi astigmatikoak gune ezberdinetan ditu foku puntuak, kornearen kurbadura dela eta, ikuspen lausoa sortuz. “Eta ez al luke horrexek behar literatur kritikaren eginbeharra: kontrajarri eta itxuragabetuari begira jartzeara? Ez al da ikuspegi bakar eta zentratu bat mantentzeko behar obsesiboa literatur historien, eta ‘mundu historien’ akatsik nabarmenena?”. Delgadoren ustez, aditua ezin da ikuspegi



horiek kolpean aratz ikusaraziko dizkion betaurrekoen zain gelditu, “begira jarraitu behar du, eta ikuspuntua aldatzeko prest egon, lauso bada ere, dimentsio anitzeko den errealtatea ikusi ahal izateko”.

Bortizkeria politikoaren gaia ere maiz agertu da hizketaldietan –Nerea Arruti, Anabel Martin–. Hartaz idatzi behar ote den, nola idatzi beharko litzatekeen... Memoria izan zen beste batzuetan nagusi, Alfredo J. Velasco-Sosaren hitzaldian, adibidez, eta lokala eta unibertsalaren ezkontza Xavier Plarenean, Josep Pla idazle kataluniarra adibide hartuz. Bidaia liburuak eta nazioen eraikuntzarekin duten lotura gorabeheratsua izan zituen mintzagai Luis Fernandez Cifuentesek, eta idazle *marraño*-ak, aldiz, Teresa M. Vilarós-Solerrek.

### Euskal idazleak

Ikuspuntu pertsonalagotik aritu dira euskal idazleak. Euskaraz idazteaz, eta horrek dakartzan ondorioez. Zergatik idatzi hizkuntza txiki horretan, munduan errazago dabil-tzan, eta haienak ere badiren beste hizkuntza handiagoak erabili beharrean? Hori izan da behin eta berriz aipatu den galdera. Sei idazle eta sei erantzun ezberdin, pertsonalagoak batzuk, politikoagoak besteak.

Atxagaren hitzaldiak ekarri du sokarik luzeena. Euskaraz idazteko erabili ohi diren eta erabiltzen diren arrazoiei buruz egin du gogoeta *Kortxo* eta *aingura* izeneko hitzaldian. Arrazoi arinei “kortxo arrazoiak” deitu die, eta astunei, aldiz, “aingura arrazoiak”. Arrazoi indibidualak bultzatuta ida-

**Ezker-eskuin: Aurelia Arkotxa, Mariasun Landa, Iban Zaldia, Rikardo Arregi Diaz de Heredia eta Bernardo Atxaga. Idazleak hizkuntza artean kongresuan parte hartu zutenen zerrenda eta eskainitako hitzaldien inguruko informazio gehiago Interneten, <http://basque.unr.edu/Literature2008.htm> helbidean.**

tzi dezake idazleak euskaraz, “desio duela-ko”, baina ikuspuntu sozialetik eta instituzioei dagokienean, aingura arrazoia beharrezkoak dira, eguneroko esfortzua eskatzen duelako horrek, eta desioak ez ei diolako horri eusten. Euskal literaturaren instituzioa aingura ideologiko eta politiko-ek eratu zuten. Orain hortik urrunago joatea da lortu behar litzatekeena Atxagaren iritziz, idazlearen eta irakurleen arteko intimitatea garatzera.

Gaztelaniaz argitaratuz gero, ikusezina da euskal idazlea, eta euskaraz eginez gero, aldiz, atentzio mediatiko handia jasoko du Euskal Herrian. Mirande eta Arestiren garaian “latza” zen euskaraz idazteko hautua egitea, baina gaur egun “ez hainbeste”. Beste literatura batzuekin alderatuta, euskal literatura ez dagoela hain gaizki aipatu du, dirua ez dela halako arazoa, eta “usurpatzaileak” ere badaudela.

Literatura nazionalak nagusi diren egitura batean, literatura gutxituek kuota bat izaten dutela esan du Elena Delgadok eztabaidarako zabaldutako tartean, eta euskal literaturaren kasuan, kupo hori Bernardo Atxagak betetzen duela. Ildo beretik egin du Joan Ramon Resinak bere galdera. “Posible da euskal literaturan Atxaga bat baino gehiago egotea?”. Mari Jose Olaziregik, azkenik, euskal literaturaren ajeak aipatu ditu; hizkuntza-ren transmisioan dagoen defizita, irakurtze-tasun maila baxua, euskaraz irakurtzeko zailtasunak... “Atxaga da horretatik guztitik salbatzen den bakarra”. ■



# B I L B O

Maiatzaren 29tik ekainaren 8ra arte, Arenalean

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

*Bizi irakurriz!*

Mari Jose Olaziregi

## «Oso amateur gabilta munduan»

Nola eragiten du ingelesaren hegemoniak munduko hizkuntza eta literaturaren berrantolaketa? Zer aukera dute bazterretik datozen ahotsak testuinguru berri honetan entzunak izateko? Zer paper betetzen du literatura gutxitu batek bere komunitateari begira? Galdere horiek zirikatuta egin da Renoko kongresua. Ikasturte bat darama Mari Jose Olaziregi literatur kritikari eta irakasleak Center for Basque Studies-en lanean, eta bera aritu da kongresuaren antolaketa lanetan.



## Zergatik izan da garrantzitsua kongresu hau?

Horrelako biltzarrak beti dira garrantzitsuak, eta hau are gehiago, oso gutxi direlako atzerrian egin eta euskal literatura tartean duten kongresuak. Garrantzitsua izan da, baita ere, AEBetan egin delako, eta ingelesa delako egun, munduko *lingua franca*. Merkatu kontuetan, ingelesarekiko nolabaiteko morrontzan daude gainerakoak. Horregatik, momentu ona da aztertze gurea bezalako literatura txikiak zer leku duten merkatu global horretan. Eta hortik dator kongresuaren izena ere.

## Gonbidatuak ere garrantzitsuak izan dira.

Euskal idazleek gain, AEBetan dauden hispanista ezagun eta entzutetsuak gonbidatu ditugu. Historiografia berri baten beharra aldarrikatu dute aditu horiek. Sentsibiltate berezia dute guztiek. Luis Fernando Cifuentesek, eta Mario Santanak, bi aipatzearen, behin baino gehiagotan esan izan dute espainiar literaturaren historia egiten denean, espainiar literatura deritzon hori ez dela gaztelaniaz idatzitakoa bakarrik, horrez gain badaudela ondoan beste literatura batzuk ere gaur egun zeresan handia dutenak. Santanak aztertu duenez, baina, literaturaren historia idaztean ikusezin egiten dira beste literatura horiek, edo irentsi egiten dira bestela. Gero badira beste kontu batzuk literatura desberdinen arteko harremanak eta indar-orekak neurtzeko balio digutenak. Itzulpenak, adibidez. Gaztelaniara egindako itzulpenak askoz ere gehiago dira, adibidez, gaztelaniatik beste hizkuntzetara egiten direnak baino. Espainian literatura zentrala zein den argi adierazten du horrek: gaztelaniakoa. Nik ez diot gaztelaniara itzuli behar ez denik, kontrakoa ere egin behar dela baizik.

Gure idazleek leku bat topatu behar dute, euskal idazle diren aldetik.

## Eta ingelesa izan al daiteke horretarako bide?

Ingelesa gurera egokitu behar dugu. Muga politikoak gaindituz, munduan gurea den bezala aurkeztu behar dugu, ingelesera itzultitako euskal lan bat bezala, baina ikuspuntua aldatuz, ez literatura nazionalen izenean, merkatu ireki eta zabal horren izenean baizik. Gurearen kasuan, adibide bat aipa dezaket nik; hemen, Renoko Unibersitatean egindako *An Anthology of Basque Short Stories* [Euskal Narrazio Laburren Antologia] izeneko bilduma. Bide ona egin zuen, eta beste hiru itzulpen heldu ziren haren ondotik. Funtzionatu zuen. Egia da, baita ere, kanpoan mugitzeko gauzarik eraginkorrena sari bat dela. Hori da Unai Elorriagaren eta Bernardo Atxagaren kasua. Alde handia dago bata eta besteak Espainiako Sari Nazionala lortzerako egin zuten ibilbidean, baina horrek bultzada handia eman die bieci.

tsitatean egindako *An Anthology of Basque Short Stories* [Euskal Narrazio Laburren Antologia] izeneko bilduma. Bide ona egin zuen, eta beste hiru itzulpen heldu ziren haren ondotik. Funtzionatu zuen. Egia da, baita ere, kanpoan mugitzeko gauzarik eraginkorrena sari bat dela. Hori da Unai Elorriagaren eta Bernardo Atxagaren kasua. Alde handia dago bata eta besteak Espainiako Sari Nazionala lortzerako egin zuten ibilbidean, baina horrek bultzada handia eman die bieci.

## Eta sariez gain?

Literatura txikiak badute mundura konplexuekin bezala aurkezteko ohitura. Nik uste dut oso anbizio handiz jardun behar dutela euskal idazleek eta euskal erakunde literarioek. Daukatena ona dela sinetsi behar dute. Eta nik dakidala, orain

arte, politikoez ez dute horretan gehiegi sinetsi. Europako beste leku batzuetara begira jarritz gero, ohartzen zara gurean dirua ez dela problema. Badago guk duguna baino askoz gutxiagorekin gauza politak egiten dituen herrialderik. Sinestea, bultzatzea, eta irizpide bat edukitzea da garrantzitsua. Ausarta izatea, sareak eraikitzea, eta irakurle berriak bilatzea. Oso amateur gara, eta oso amateur gabilta munduan. Egin ditugun itzulpen gehienak kontaktu pertsonalengatik egin ditugu. Badaude instituzionalak ere, baina pertsonalak dira gehienak. Euskal idazleak ez du maila horretan babes handirik.

## Eta bide horretan aurrera egiteko balio izan du kongresuak.

Helburua AEBetan sarea sortzea zen, sare akademikoa. Hori da egin gabe dagoena, eta hori da egiten saiatu garena. ■

“Oso anbizio handiz jardun behar dute euskal idazleek eta euskal erakunde literarioek. Daukatena ona dela sinetsi behar dute”